

ANTOLATZAILEAK



Aretxabaletako
Udala
KULTURA SAILA



Didazten



Karmele Igartua

sorkuntza beka
IX. edizioa

NARRAZIOA

www.aretxabaleta.eus

www.idazten.com

2019

Oinarriak



1. PARTE HARTZAILEAK

16 urtetik gorako edozein pertsonak har dezake parte lehiaketan.

2. LANAK

Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Narrazioak originala izan behar du, argitaratu gabea eta euskaraz idatzia, ez da onartuko itzulpenik.

Narrazio luze bakarra edo narrazio-bilduma aurkez daiteke.

Aurkezten den lanak ez du 20 orrialde baino gehiagoko luzera izango, ezta 12 baino gutxiagokoa ere. Aurpegi bakarrean idatzita egongo da, New Courier 12 hizkian.

3. GAIA

Gaia librea izango da.

4. AURKEZPENA

Lanak posta arruntez edo posta elektronikoz bidal daitezke.

* Posta arruntez:

- Helbide honetara bidaliko dira: Otalora kalea 1, 20550 Aretxabaleta
- Udaletxean bertan ere aurkez daitezke, jendaurreko ordutegian.
- Lanak hirukoiztuta aurkeztuko dira, gutun-azal baten barruan. Gutun-azalaren kanpoko aldean, helbidearen gainean, hau adieraziko da: "Kultura: Karmele Igartua Sorkuntza Beka. 2019: Narrazioa". Ale bakoitzak izenburua izango du orrialde guztietan.
- Gutun-azal handiaren barruan derrigorrezkoa da beste gutun-azal itxi bat sartzea (plika). Gutunazal horren kanpoko aldean narrazioaren izenburua bakarrik jarriko da, eta barruan datu hauek:
 - Egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa, eta jarraian, curriculum laburra.
 - NAN edo pasaportearen fotokopia.
 - Aitorpen idatzia, non adieraziko baita aurkeztutako lana jatorrizkoa dela eta argitaratu gabea, eta ez duela inongo lehiaketatan saririk jaso.
 - Halaber, egileak berariaz aitortuko du deialdiaren oinarriak ezagutu eta onartzen dituela.

* Posta elektronikoz:

- Lanak lanak.kultura@aretxabaleta.eus helbidera bidaliko dira.
- Mezu elektronikoaren gaia hau izango da: "Kultura: Karmele Igartua Sorkuntza Beka. 2019: Narrazioak"
- Lana PDF formatuan aurkeztuko da, eta PDFaren izena narrazioaren izenburua izango da.
- Beste artxibo batean, posta arrunterako eskatu diren datu berberak idatziko dira.

Antolatzaileek idazlanak soilik bidaliko dizkiete epaileei, egileen anonimotasuna gordetzeko.

5. LANAK AURKEZTEKO EPEA

Lanak bidaltzeko azken eguna: 2019ko azaroaren 30a.

6. HAUTAKETA-PROZESUA

Epaimahaia Bergarako Idazle Eskolak izendatuko du, eta erakunde horretako kideen eta literatura munduko pertsonen artean aukeraturiko kideekin osatuko da.

Jasotako lan guztiak aztertu ondoren, epaimahaiak irabazlea aukeratuko du. Erabakia 2019ko abenduaren 30a baino lehen jakinaraziko da.

7. SARIAK

Irabazleak 2.500 euroko diru saria jasoko du. Kopuru horretatik, aplikagarriak diren zerga-arauak betez atxiki beharrekoa deskontatuko da. Saria eman gabe gera daiteke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

8. JABETZA

Lan irabazlea Aretxabaletako Udalaren eta Bergarako Idazle Eskolaren jabetzan geratuko da urtebetez. Erakunde horiek epe horretan bakarrik erabili ahal izango dituzte egile-eskubideak, eta grabatzea edo zabaltzea erabakiz gero, egilearen izena aipatuko dute.

9. OHARRAK

Lehiaketa honetan parte-hartzeak arau hauek eta epaimahaiaren erabakia erabat onartzea dakar berarekin.